

OINARRIAK

Bilbotar emakume migratzaileei sariak: 2025



**BILBOKO UDALEKO
IMMIGRAZIO KONTSEILUA
CONSEJO LOCAL
DE LA INMIGRACIÓN
DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO**



**MIGRAZIORAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA
PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACIÓN**



I. **SARRERA**

Aniztasunari dagokionez, Bilbok kulturarteko ereduan oinarritzen du bere esku-hartzea, honako printzipio hauetan oinarrituta: berdintasuna, aniztasunaren errespetua eta aitortza, elkarrekintza positiboa, kidetza eta auzotasuna.

Gero eta aniztasun zabalagoa dago, eta gero eta handiagoa da aniztasun hori aipatutako ereduaren arabera kudeatzeko beharra. Eta horrek, hain zuzen, garapen-aukera asko planteatzen ditu, baina baita erronka berri asko ere, bai herritarrentzat, bai erakundeentzat, bai gobernariarentzat.

Bilbon, emakume eta gizon migratzaile ugari bizi dira eta egiten dute lan, eta askok harrerako bizitoki gisa duten uri honen garapenean laguntzeko indar eta ekiteko gaitasun handia dute, baita beren jakintzak, kultura edo indarguneak eskaintzeko gogo handia ere. Oro har, Bilbon bizi diren biztanle atzerriarren erdia baino gehiago emakumeak dira (% 52,4), eta jatorri jakin batzuetako taldeetan are nabarmenagoa da feminizazioa. Kulturarteko uri batean, funtsezkoa da emakume horiek askotariko alorretan betetzen duten zeregina nabarmentzea: profesionalak dira, liderrak, pentsalariak, politikariak, ekintzaileak eta beren familia eta sareen ongizateren eta garapenaren giltzarriak.

Bilbotar emakume migratzaileei ezagutza agertzeko ekimenak hiru **helburu nagusi** ditu: Bilboko bizitza sozial eta publikoan emakume etorkinak duen garrantzia aitortzea; aniztasunari aitortza egitea, eta aniztasunaren erreferentziazko

agertokiak sortzea. Ekimena **“Bilbo, Kulturarteko Hiria” III. Planaren** barruan dago. Plan horrek, oro har, modu transbertsalean txertatzen du genero-ikuspegia onartutako neurri guztietan, eta zehazki, emakume migratzaileak ahalduentzeko programen bidez.

Testuinguru horretan, emakume migratuen urteroko aintzatespen-proiektua garatzeko, **Bilboko Emakume Migratuen Komunitatea** sortu da. Ekimen hori funtsezkoa da helburuei jarraipena emateko eta Bilbon etengabeko lan-prozesu bat sortzeko. Topaketa-, ahalduentze- eta aintzatespen-gunea da eta 2023an sortu zenetik kolektiboki indartu nahi duten hainbat jatorritako 170 emakume migratu baino gehiago bildu ditu. Topaketen bidez, komunitateak tresnak eta laguntza eskaintzen ditu ikuspegi feministatik, kideen ikusgarritasun soziala sustatuz eta tokiko sareekin konexioak sortuz.

Bilbok aurrera egiten du nazioarteko uri anitz, inklusibo, solidario eta igualitario gisa, eta ekimen hau bat dator erabat Agenda 2030eko garapen jasangarriaren helburuekin (GJH), desberdintasunak murrizteari eta bakea eraikitzeari, justiziari eta erakunde sendoak sustatzeari buruzkoekin. Halaber, bat dator **“Bilbao Balioen Hiria” Eskutitza eta Balio Planarekin; proiektu estrategiko horrek** inklusioa, tolerantzia eta bizikidetzaren bultzatzen dituzten ekintzak garatzen ditu kultura-aniztasunetik, beti justizia soziala, giza eskubideen errespetua, inklusioa, konpromisoa, elkartasuna eta partaidetza oinarri izanik.



Era berean, ekimen honek berekin dakar **Hiriko Giza Eskubideak Babesteko Kartara** atxikitzean hartutako konpromisoak lantzea, zeinaren arabera hiriak funtsezko eragileak baitira giza eskubideak bete, bermatu eta garatzeko eta eskubideon eraginkortasunerako.

Ilido horretan, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako **Migraziorako Euskal Itun Soziala** ekimenari atxiki zaio Bilbo, Euskadin bizi diren pertsona guztien artean bizikidetza inklusiboa, errespetuzkoa eta kohesionatua sustatzeko. Itun horrek giza eskubideetan, tratu-berdintasunean eta aniztasunaren balioan oinarritutako gizarte baten aldeko apustua egiten du, eta erakundeak, gizarte-erakundeak eta herritarrak komunitate solidario eta kulturarteko baten eraikuntzan

inplikatzeko ditu. Helburu horiek zuzenean lotuta daude Emakume Migratuen Aintzatespenaren helburuekin.

Proiektua **Bilboko Udaleko Immigrazio Kontseiluaren** ekimen bat da. Kontseilu hori kide anitzeko organo bat da; aholkuak eta informazioa ematen ditu, eta etorkinen elkarrekin eta udalerriko jarduera politikoan, ekonomikoan eta sozialean, gizarteratze- eta bizikidetza-politikak garatzen eta bultzatzen ari diren gainerako eragileen partaidetza demokratikoa ziurtatzeko asmoz sortu zen. Haren zeregine-tako bat herritarrentzako sentsibilizazio-programak proposatzea eta kudeatzea da, udalerriko etorkinen inguruko eza-gutza eta irudia hobetzeko.



II. Aitorpenaren helburua

Atzerritar jatorriko emakumeek edota atzerritarren ondorengo emakumeek gizarte hartzaileari egiten dioten lana, konpromisua eta ekarpena aitortzea eta ikusgai jartzea, sei kategoriatan:

- **Emakumea komunitate-eragile gisa:**

emakumeek auzoetan bizikidetzatza eta gizarte-ko hesioa sustatzeko egiten duten auzo- eta komunitate-lana aitortzen du.

- **Emakume ekintzailea:**

edozein jarduera-sektoretako enpresa- edo autoenplegu-proiektu jasagarriak dituzten emakumeak hartzen ditu barne, banaka, taldeka edota elkarrekin bidez jarduten dutenak; kategoria honetan sartzen dira ere enpresa batean garapenak eta aurrerapenak gidatu edo bultzatu dituzten emakumeak.

- **Emakume politikaria:**

eragin politikoa duten ekintzak gauzatzen dituzten emakumeei agertzen die ezagutza, ekintzak edozein jardun arlotako politika publikoak eraldatzera bideratuta daudenean eta alderdi politiko baten edo parte hartzeko edo eragin publikoa izateko beste gune batzuen bitartez gauzatzen direlarik, hala nola gizarte-erakunde bidez.

- **Emakume artista:**

arten, diseinuaren, kultura-ekoizpenaren edo sormen-industriekin lotutako beste edozein diziplinatan nabarmentzen diren emakumeei egiten die aitortza.

- **Emakume zientzialaria:**

zientziaren, ikerkuntzaren edo teknologiaren arloan ekarpenen bat egin duten emakumeei egiten die aitortza.

- **Emakume gaztea:**

aurrereko kategorietako edozeinetan ibilbide bat egin duten 30 urte arteko emakume migratzaileei agertzen die aintzatespena.

III. Hautagaiek bete beharreko baldintzak

Aintzatespenetara hautagai diren **emakumeek atzerritar jatorrikoak edo atzerritarren ondorengoak** izan behar dute, kontuan hartuz era bateko eta besteko mailetan elkar eragin dezaketen nortasun ardatz guztiak, hala nola genero-identitatea edota identitate sexuala; **Bilboko udalerrian izan behar dute egoitza ezinbestean, edo aitortzen jasotzeko aurkeztu den ekimenak Bilbon eragina duela egiaztatzen**. Gainera, gutxienez **bi urteko ibilbidea eduki behar dute** ezagutza agertzen zaien kategorian.

IV. Hautagaitzak aurkeztea.

Behar diren agiriak

Hautagaitzak honela aurkeztuko dira:

1. Entitateen bitartez aurkeztutako hautagaitzak (elkarteak, fundazio koordinatzaileak, federazioak, enpresak eta abar). Entitateak aurkeztuko ditu aintzatespenerako emakumearen agiriak, eta adierazi beharko du zein kategoriatan izan nahi duen hautagai.

2. Norberaren hautagaitza. Kasu honetan, betekizunak betetzen dituela uste duen emakumeak aurkeztuko du zuzenean bere hautagaitza, kategoria bakar baterako (zeinetarako aurkezten duen adierazi behar du). Lehiaketan norberaren hautagaitza bidez parte hartu nahi dutenek, bi erakunderen (elkarteak, fundazio koordinatzaileak, federazioak, enpresak, ikastetxeak, etab.) abalak beharko dituzte. Abala ematen duten erakundeetako batek, gutxienez, Bilboko Udaleko Immigrazio Kontseiluko kide izan behar du.

Hautagaitzak online baino ezingo dira aurkeztu, Bilboko Udalaren webgunearen bidez, honako esteka honetan: **www.bilbao.eus/mujer_migrante**

Hautagaitzak aurkeztean, entitatearen datuak eta aurkeztu den emakume hautagaiaren datuak ez ezik, hautagaitza arrazoitzeko araudia ere aurkeztu beharko da, eta entitateen bi abal, norberaren hautagaitza aurkeztuz gero. Era berean, beste agiri batzuk ere aurkeztu ahal izango dira, hautagaitza arrazoitzeko.

V. Hautagaitzak aurkezteko epea

Hautagaitzak aurkezteko epea

2025eko urriaren 1etik abenduaren 15era artekoa izango da.

VI. Epaimahaia eta aukeratzeko irizpideak

Epaimahaia honako pertsona hauek osatuko dute:

- Giza Eskubide, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasun Saileko ordezkaria.
- Udaleko Immigrazio Kontseiluko bigarren presidenteordea (Novisi Elkarte), Udaleko Immigrazio Kontseiluko elkartearen ordezkari gisa.
- Cristina Zamora. Emakume Migratuen Aintzatespenaren VI. Edizioan Emakume Komunitarioaren kategorian aitortutako emakumea.

Hautagaitzak baloratzeko, epaimahaiak 20 puntu banatuko ditu, eta honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

1. Bat ote datorren aintzatespenaren helburuekin, *4 puntu.*
2. Hautagaiak dena delako kategorian duen ibilbidea, *gehienez ere 3 puntu.*
3. Hautagaiaren esperientzia-urteak, *gehienez ere 3 puntu.*
4. Eragin soziala, *gehienez ere 5 puntu.*
5. Entitate publiko eta pribatuekin duen lankidetzazko lotura, *gehienez ere 2 puntu.*
6. Aitortza-proposamenean giza eskubideen ikuspegia txertatzea, *gehienez ere 2 puntu.*
7. Aitortza-proposamenean genero-ikuspegia txertatzea, *gehienez ere 1 puntu.*

Epaimahaiak bere esku izango du oinarri hauek interpretatzea, hala behar balitz, eta bere jarduteko arauak zehaztea. Horrez gainera, bere esku izango ditu saria emateari buruzko ahalmen gorenak, edo, hala balegokio, sariak eman gabe uzteari buruzkoak. Era berean, hautagaiak aurkeztutako dokumentazioaren arabera egokientzat jotzen diren kategorietan birkokatu ahal izango ditu epaimahaiak, aintzatetsi beharreko kategoria bakoitzean nabarmendu beharreko edukiak kontuan hartuta.

VII. Aitorpenaren ezaugarriak:

Sarituek U Mariel Achata Murillo artista zeramikari boliviarrak sortutako obra jasoko dute. Artista hau Bilbon bizi da duela 13 urte, eta hainbat gizarte-ekimenetan parte hartzen du.

Aintzatespen hauetarako, gresezko eta portzelanazko piezak sortu dituzko prozesu konplexu bat jarraituz, hauen iraunkortasuna bermatuko duen prozesua, hain zuzen, emakumeentzako omenaldi ukigarri eta esanguratsua izan daitezten.

Era berean, hautagai guztiek diploma bat jasoko dute, ekimenean parte hartzeagatik.

VIII. Harremanetarako:

Deialdi honetako oinarri hauei buruzko zalantzak argitzeko, galdetu helbide elektroniko honetan:

inmigracion@bilbao.eus





Bilbao



**BILBOKO UDALEKO
IMMIGRAZIO KONTSEILUA
CONSEJO LOCAL
DE LA INMIGRACIÓN
DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERROKIA DEMOGRAFIKOPAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



**MIGRAZIORAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA
PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACIÓN**